

# Global express

La actualidad en el aula

## Argentina se hunde en la crisis



"Argentina se hunde como el Titanic, pero no por culpa de un gran agujero, sino porque está agujereada por todos sitios."

(Eduardo Duhalde, actual presidente de Argentina.)

En el último año, tres millones de argentinos dejaron de ser clase media y pasaron a ser pobres. Después de cuatro años de recesión y endeudamiento, la población argentina ha llevado su frustración a las calles manifestándose con cacerolas, saqueos de supermercados y enfrentándose a las fuerzas de seguridad del Estado.

Esta edición de Global Express analiza las razones de la crisis, acercándonos a la realidad económica y social de Argentina.

- El estallido de la crisis
- Los protagonistas nos lo cuentan
- El papel de las empresas españolas
- Unos tiene mucho, otros no tienen nada
- ¿Hacia dónde vamos?
- Guía didáctica

# El estallido de la crisis



La televisión nos ha transmitido estos días una imagen de Argentina muy diferente de la que se puede esperar de un país "desarrollado". Miles de personas ocupaban las calles y las plazas mientras golpeaban cacerolas, tapaderas y cualquier objeto que hiciera ruido. Se quejaban de hambre, desempleo e inseguridad. Son gente de la capital y del campo, de las clases sociales más empobrecidas, pero también de las clases medias y altas, que en los cuatro últimos años han sufrido un fuerte golpe en sus ingresos familiares.

La situación económica de Argentina no siempre ha sido así. En 1930, Argentina era una potencia mundial, con un ingreso por cápita similar al de Francia. Pero en los años 40 la economía del país empezó a hundirse, debilitada por la corrupción, los regímenes militares y los conflictos internos. Cuarenta años después, Argentina estaba al borde de una crisis social y económica total, con una inflación cercana al 200% y una deuda externa en aumento. En esa situación, el entonces presidente, Carlos Ménem, decidió adoptar y aplicar las políticas del Fondo Monetario Internacional: liberalización total del comercio y privatización de las empresas nacionales para fomentar la inversión extranjera. En 1991, se aplicó la convertibilidad del peso al dólar –es decir, se equiparó el cambio de las dos monedas uno a uno– para fomentar la confianza de los inversionistas. Hacia la mitad de los años 90, la inflación había sido prácticamente eliminada, pero se habían pedido grandes préstamos internacionales para tener suficiente reserva en dólares y hacer así viable la convertibilidad. Los sectores financieros mundiales apuntaban a Argentina como un buen ejemplo de cómo los países más pobres pueden estimular sus economías y aumentar su desarrollo adoptando los principios del libre mercado global. Era un país del "primer mundo" en medio de un continente del "tercer mundo": América Latina.

Pero a finales de los 90, la subida del dólar en el mercado internacional provocó un aumento en los productos argentinos. Como la moneda argentina, el peso, valía lo mismo que el dólar, cada vez que subía el dólar respecto a otras monedas también subía el peso y, por tanto, subían los precios de los productos argentinos, que costaban casi lo mismo que en Estados Unidos. Esos mismos productos se podían comprar en Brasil mucho más baratos, así que las exportaciones de Argentina empezaron a disminuir peligrosamente y muchas empresas nacionales quebraron al no poder competir con los precios de los productos procedentes de otros países. . El país se iba quedando sin recursos propios, a la vez que el importe de la deuda externa crecía más y más. Durante el año 2001 la crisis empeoró gravemente. Para resolverla, el Gobierno pidió prestado más dinero al FMI, pero las condiciones de pago lo obligaron a recortar los gastos sociales, con lo que aumentó el sufrimiento de la población. Mientras, en ese mismo año, la fuga de

capitales del país en manos de los grandes inversionistas subía a más de 120 millones de euros. A mediados de diciembre, la gente empezó a temer que el peso fuera a devaluarse y quiso cambiar su dinero en dólares. Pero ni los bancos ni el Gobierno tenían suficiente reserva de dólares para cubrir la demanda de la población. Por eso se limitó la cantidad de dinero que las personas podían sacar de sus cuentas bancarias. Es el famoso "corralito": ningún argentino podía sacar de sus cuentas bancarias más de 650 dólares mensuales (unos 720 euros) . Además, los ahorros quedaban congelados en las cuentas bancarias y sólo se podría disponer de ellos a plazos. Fue la gota que colmó el vaso y lanzó a los argentinos a la calle.

Después de que cayeran dos presidentes, Duhalde, el nuevo presidente, ha tenido que devaluar la moneda finalmente y romper la equivalencia con el dólar. Esto provocará que en Argentina vuelva a haber inflación: los precios de los productos tendrán como referencia el dólar, y subirán cada vez que el peso se vuelva a devaluar y pierda valor respecto al dólar. Los salarios y los ahorros de la gente serán en pesos, y con el mismo dinero cada vez podrán comprarse menos cosas.

## Para entender un POCO MÁS

Argentina tiene una población de 36 millones de personas.

Un total de 14 millones de personas viven actualmente bajo el nivel de pobreza (el 44% de la población). La crisis del último año convirtió en pobres a tres millones de argentinos de la clase media.

El desempleo ha alcanzado el 18,3% de la población económicamente activa, la cifra más alta en la historia del país.

Desde 1992, el 45% de los adolescentes argentinos ha abandonado la educación secundaria por falta de dinero para continuar sus estudios.

La deuda pública asciende a 132 mil millones de dólares.

La tercera parte del presupuesto del país sólo alcanza para pagar los intereses de la deuda.

La recesión económica dura ya 41 meses.

Cinco presidentes en dos semanas y 28 muertos durante los alborotos



**"Cualquier Gobierno que aplica políticas que dejan a grandes sectores de la población desempleados no está cumpliendo con su misión."**

(JOSEPH STIGLITZ, VICEPRESIDENTE DEL BANCO MUNDIAL. EL PAÍS, 10 DE ENERO DE 2002.)

A partir de la crisis del país, se dice que Argentina es un ejemplo del fracaso de las políticas del FMI que promueven la liberalización como motor del crecimiento económico de los países pobres. Aunque dichas políticas consiguen parar la inflación y promover los flujos de dinero extranjero, también imponen la reducción del gasto público en momentos de crisis –lo que a menudo quiere decir disminución en los gastos sociales, como educación, hospitales, carreteras y edificios– e impiden el desarrollo a largo plazo.

**"La gente ya no resiste más. Son todos ladrones, asesinos. Pero todavía falta, falta para un verdadero cambio."**

(HEBE DE BONAFINI, DIRIGENTE DE LAS MADRES DE MAYO. EL PAÍS, 21 DE DICIEMBRE DE 2001.)

Aunque es cierto que algunos sectores locales se benefician de las políticas del FMI, a menudo sólo lo hacen las elites locales. Además, estas políticas tienden a aumentar la desigualdad entre los ricos y los pobres de un mismo país. Una de las críticas es que estas élites no sufren la crisis del país porque la mayoría tienen su dinero en bancos y paraísos fiscales en el extranjero.

**"Acá no podés tener proyectos. Allá también trabajás 16 horas por día, pero tenés futuro."**

(ALFREDO) (EL PAÍS, 23 DE DICIEMBRE DE 2001)

Muchos argentinos son descendientes de españoles o italianos que emigraron durante la primera mitad del siglo xx huyendo del hambre y la persecución en sus países de origen. Argentina los acogió y se establecieron. Ahora, sus hijos y sus nietos hacen largas colas ante los consulados para tramitar la nacionalidad y poder venir a España a trabajar y rehacer su vida, escapando de la desesperación en Argentina.

**"¿Por qué Papá Noel no trae los renos cuando viene a Argentina? ¡Porque nos los comemos!"**

(EL PERIÓDICO, 22 DE DICIEMBRE DE 2001.)

En medio de la desesperación, todavía quedan ganas en las calles de Argentina para hacer broma y buscar alguna alternativa. Cinco millones de personas participan en una red de trueque para poder intercambiar productos, servicios y objetos personales. Se alquila un coche por una semana a cambio de un empaste en una rueda, una clase de inglés o medio cordero para asar.

## Qué es el Fondo Monetario Internacional (FMI)

El FMI es una institución intergubernamental con base en Washington DC. Se creó en 1945 para ayudar a mantener la salud de la economía mundial y está formado por 183 países.

Es la institución central del sistema monetario internacional, el sistema de los pagos y transacciones entre monedas de diferentes países que hacen posibles los negocios entre los países. Los países miembros pagan una cantidad de dinero conocida como "cuota de suscripción". Esta suma determina cuánto dinero podrá el país pedir prestado al FMI en tiempos de crisis. Las cuotas también determinan el derecho de voto y decisión de cada país miembro; es decir, el poder de decisión del FMI depende de los países que pueden pagar la contribución mayor. Así, los cinco países principales que mantienen el FMI son Estados Unidos, Japón, Alemania, Francia y el Reino Unido.

El FMI presta dinero a los países miembros que tienen problemas con su balanza de pagos –cuando un país no ingresa a través de sus exportaciones suficiente moneda extranjera para importar los productos que necesita–. A cambio, los países deudores deben aceptar un programa de reformas económicas impuestas por el FMI y dirigidas a disminuir el gasto público para superar el déficit. Tanto el Banco Mundial como el FMI son los propietarios de billones de dólares de deuda de los países del Tercer Mundo.

# El papel de las empresas españolas

## El papel de las empresas españolas




España es el segundo inversor extranjero en Argentina, después de Estados Unidos. Posee el 37,4% de la inversión en ese país del Cono Sur. Cuando en los años 80 la inflación estaba a punto de ahogar a Argentina, se privatizaron la mayoría de las empresas públicas argentinas en unas condiciones muy convenientes, para atraer así inversión extranjera. Fue el momento de las grandes empresas y bancos españoles, que compraron buena parte de las empresas argentinas a un precio casi regalado en uno de los peores momentos económicos del país. Telefónica ha manejado las comunicaciones argentinas prácticamente en monopolio. Y los bancos españoles son

algunos de los principales acreedores que exigen el pago de la deuda pública al Gobierno argentino.

Ahora, con el agravamiento de la crisis, la devaluación del peso y la suspensión de pagos decretada por el Gobierno argentino, los directores y gerentes de las principales empresas y bancos se quejan de las terribles pérdidas que la crisis supondrá para sus accionistas. Por ejemplo, para el Banco Central Hispano se calculaban pérdidas de 1.596 millones de euros millones de pesetas, aproximadamente. Pero a pesar de ello, el primer banco español logró un beneficio en el año 2001 de 2.486,3 millones de euros. Un 10,1% más respecto al año anterior.

## Unos tienen mucho, otros no tienen nada



En Argentina, como en muchos países pobres, hay una gran diferencia en la distribución de los ingresos y los recursos. Una consultora argentina, Equis, ha hecho un estudio siguiendo las recomendaciones de las Naciones Unidas y ha constatado que los que tienen más ingresos en Argentina tienen 30 veces más que los que tienen menos. Es lo que se llama la "brecha social", que refleja la desigualdad de oportunidades y recursos dentro de un mismo país. En Argentina, esta brecha es la peor de los últimos 26 años, peor incluso que en la crisis de la inflación de los años 80.

## ¿Hacia dónde vamos?



Para que un país pobre pueda desarrollarse, debe (entre otras cosas) buscar soluciones para librarse del peso de la deuda externa. Y es que la deuda no sólo agota los recursos escasos de cada país, sino que además fuerza la búsqueda continua de nuevos préstamos para poder pagar las deudas más antiguas. Hay movimientos y campañas internacionales que piden la condonación –o sea, la anulación– de la deuda externa de los

países pobres, o bien su canje –cambio– por inversiones en planes de desarrollo.

También se han extendido por todo el mundo las críticas que piden el cierre al FMI y el Banco Mundial o bien una reforma radical de estas instituciones, para hacerlas más democráticas y accesibles a los principales afectados por sus políticas.

**Ahora que estamos todos en plena guerra contra el terrorismo internacional, esta duda no está de más: ¿qué hacemos con el terrorismo del mercado, que está castigando a la inmensa mayoría de la humanidad? ¿O no son terroristas los métodos de los altos organismos internacionales que dirigen las finanzas, el comercio y todo lo demás? ¿Acaso no practican la extorsión y el crimen, aunque maten por asfixia y hambre y no por bomba? (EDUARDO GALEANO)**

# Guía didáctica

## Guía didáctica

La propuesta que adjuntamos se dirige al alumnado de educación secundaria. Las actividades pueden ser de utilidad para el área de sociales y de ética, tutorías, etc., así como para cualquier docente interesado en el tema. El objetivo de esta propuesta es identificar y entender la gran variedad de factores y actores que intervienen en una crisis socioeconómica como la que está viviendo Argentina. La guía de contenidos Global Express permitirá al profesor explicar los temas que se analizan en la propuesta didáctica.

AUTOR: GASPAR TARRIDA

### Actividad nº 1:

#### Análisis de imágenes

**Objetivo:** presentar la situación de gran parte de la población argentina; poner en juego la empatía de los alumnos y alumnas hacia esta situación; trabajar los preconceptos existentes sobre Argentina.

**Orientaciones:** (1) a través de la fotografía, los alumnos deben encontrar tres palabras para definirla (desesperación, hambre, ayuda, urgencia...); (2) después deben concretar qué pide la gente en la fotografía; (3) y finalmente, elegir cinco palabras (pueden aceptarse nombres propios) que definan su idea previa de Argentina (fútbol, emigración española, psicoanálisis, ganadería...). Habría que hacer hincapié en si creen que es un país rico o pobre en recursos naturales, con personas preparadas profesionalmente, etc.

### Actividad nº 2:

#### ¿Por qué hay crisis en Argentina?

**Objetivo:** presentar las tres causas principales del estallido de la crisis.

**Orientaciones:** (4) el papel de la deuda externa en las relaciones Norte-Sur y su impacto sobre la población de los países del Sur es un tema muy complejo que puede ampliarse con más información específica. Con esta pregunta se busca que el alumnado piense lo que representa estar endeudado, las cosas que se dejan sin hacer por tener que destinar tanto dinero del presupuesto a pagar una deuda; (5) las preguntas sobre las consecuencias y los beneficiarios de las políticas del FMI pueden acompañarse de otras como: ¿quién es el principal usuario de los servicios básicos de salud y educación?, ¿conocéis alguna gran empresa española que tenga intereses económicos en Argentina?, ¿qué beneficios obtiene?; (6) la viñeta de Fontanarrosa es muy explícita, pero podrían aclararse las razones

que llevaron a declarar el "corralito" (evitar la fuga de dinero al extranjero y la quiebra de los bancos por falta de fondos para enfrentar un retiro masivo).

### Actividad nº 3:

#### Protestar con cacerolas

**Objetivo:** analizar el estallido social a través de fotografías y titulares periodísticos.

**Orientaciones:** (7) la lectura del fragmento inicial y la fotografía deben situar al alumnado en el momento del estallido social (la noche del 19 al 20 de diciembre de 2001), los titulares siguientes quieren mostrar cómo la situación se agrava progresivamente durante el mes siguiente, y finalmente el último fragmento quiere subrayar que la crisis no parece tener solución a corto plazo: los alumnos deben averiguar y comentar las principales reivindicaciones de la gente; (8) este último ejercicio pretende hacer reflexionar a los alumnos sobre la relación entre las causas y las consecuencias de esta crisis.

### Actividad nº 4

#### Y nosotros, ¿qué podemos hacer?

**Objetivo:** fomentar el debate sobre cuatro posibles soluciones a la crisis.


**Orientaciones:** dividir la clase en grupos y que cada grupo debata previamente una afirmación y luego poner en común las conclusiones; el alumnado debe ver que la primera afirmación (Argentina no pagará más su deuda externa) se contradice con la tercera (Las políticas económicas liberales del FMI permitirán salir de la crisis); las cuatro afirmaciones que se proponen son posibles aunque tal vez poco probables.

# Para saber más... Para saber más...

## Cine:

### Nueve Reinas

Director: Fabián Belinsky  
Buenos Aires, 2001  
Duración: 115 min.  
Comedia



## Libros:

### Pobres, pobreza y exclusión social

Centro de Estudios e Investigaciones Laborales  
2000  
262 pág.

### El bumerang de la deuda

Susan George  
Editorial Intermón  
1993  
350 pág.

## Páginas web: Páginas web:

### Sobre Argentina (en español)

[www.elclarin.com](http://www.elclarin.com)  
[www.lanacion.com](http://www.lanacion.com)  
[www.mafaldaresiste.com.ar](http://www.mafaldaresiste.com.ar)  
[www.argentina.indymedia.org](http://www.argentina.indymedia.org)  
[www.rebellion.org/argentina](http://www.rebellion.org/argentina)  
[www.derechos.org/nizkor](http://www.derechos.org/nizkor)

### Otras páginas interesantes (en español)

[www.imf.org](http://www.imf.org)  
[www.worldbank.org](http://www.worldbank.org)  
[www.debtwatch.org/](http://www.debtwatch.org/)  
[www.attacmadrid.org](http://www.attacmadrid.org)  
[www.intermonoxfam.org](http://www.intermonoxfam.org)  
[www.oneworld.net](http://www.oneworld.net)

### Otras páginas interesantes (en inglés)

[www.brettonwoodsproject.org](http://www.brettonwoodsproject.org)  
[www.jubilee2000.org](http://www.jubilee2000.org)  
[www.panos.org.uk](http://www.panos.org.uk)

**Visita nuestra web y descarga  
el ¡¡global express!!**

**[www.IntermonOxfam.org/educar/global](http://www.IntermonOxfam.org/educar/global)**

Global Express pretende generar preguntas entre los alumnos y las alumnas de nuestras escuelas sobre lo que cuentan los medios de comunicación. Se trata de promover una visión crítica de la realidad que les permita comprender el estado del mundo y, en especial, la situación del mundo en desarrollo.

Global Express es una iniciativa de: Development Education Project (Reino Unido), Panos Institute (Reino Unido), Centrum voor Mondiaal Onderwijs (Holanda), Centro Educazione Mondialità (Italia) e Intermón Oxfam (España).

Global Express está financiado por la Unión Europea



# Global express

La actualidad en el aula

## Argentina: --- se hunde en la crisis

1



©REUTERS/CORDON PRESS

1. Escribe tres palabras que definan la fotografía.

---

---

2. ¿Qué crees que piden estas personas?

---

---

---

3. ¿Qué sabías de Argentina? Escribe cinco palabras que definan tu idea sobre este país.

---

---

---

---

---

## 2. ¿Por qué hay crisis en Argentina?

Las causas del estallido social en Argentina son muchas y complejas. La crisis económica se agrava desde hace cuatro años y afecta cada día a más gente. Hoy día el 44% de la población argentina vive bajo el nivel de la pobreza (la cesta básica de alimentos se calcula que equivale a 75 euros al mes) y el paro es más alto que nunca. Entre las causas de esta desesperada situación vamos a señalar las tres que consideramos más importantes:

### La deuda externa

La deuda pública, que Argentina ha contraído con los bancos extranjeros y las instituciones internacionales, asciende actualmente a más de 130 mil millones de dólares. Esto significa que la tercera parte del presupuesto nacional se dedica al pago de dicha deuda, que crece imparable con nuevos préstamos para pagar los intereses.

### Las políticas liberales del F.M.I.

Para obtener nuevos préstamos, el Gobierno argentino debe cumplir las normas económicas que dicta el Fondo Monetario Internacional. Estas políticas de ajuste pretenden reducir el déficit económico (mayor gasto que ingresos) obligando a los gobiernos a disminuir el gasto público (en servicios básicos como sanidad y educación) y a privatizar las empresas públicas (de comunicaciones, energía, transportes...).

4. Busca más información sobre la deuda externa y reflexiona: ¿Qué supone para un país como Argentina estar tan endeudado?

5. ¿Quién sufre más directamente las políticas del FMI? ¿Quién puede beneficiarse de estas mismas políticas?

### El "corralito" y los políticos

Entre las causas más directas del estallido social están las últimas medidas económicas del Gobierno. El "corralito" representa la congelación de los ahorros y otros depósitos bancarios de todos los argentinos, que sólo pueden retirar una cantidad semanal. Los políticos son acusados de ineptitud, corrupción y de tener su dinero en el extranjero.



EL PAIS, 27 DE ENERO DE 2002

6. Observa la viñeta. ¿Cuál es la credibilidad que da a las propuestas de solución de los políticos?



# 3. Protestar con cacerolas

La crisis social y económica estalló violentamente poco antes de Navidad. El "corralito", que impedía retirar dinero de los bancos, hizo que la empobrecida clase media argentina saliera a la calle, junto a parados, pensionistas y las familias más pobres. El periodista argentino Joaquín Morales Solá cuenta sus impresiones de los días anteriores al estallido social en una conversación: "He estado leyendo las estadísticas de pobreza y desocupación. ¿Por qué este país no está en llamas? Esta es la pregunta que me hago desde 1995: por qué esta sociedad aguanta tanto. Durante cinco años nos preguntamos por qué no salía la gente a la calle. Ahora la pregunta es cuándo volverá a casa." (El País, 6 de enero de 2002.)

7. Lee y observa los siguientes titulares e imágenes:



**La inminente devaluación del peso dispara los precios en Argentina.**

EL PAÍS, 4 DE ENERO DE 2002.

En Argentina empieza a haber hambre. Cuatro millones de indigentes sienten cada día esta amenaza en uno de los países con mayor riqueza agrícola y ganadera del mundo. En las provincias más pobres y en los barrios de las grandes ciudades es difícil acceder a la cesta básica de alimentos. El trueque, sobre todo el intercambio de ropa y comida, es una obligada salida para sobrevivir.

**La amenaza del hambre se cierne sobre cuatro millones de argentinos.**

EL PAÍS, 27 DE ENERO DE 2002.

**El estallido social en Argentina obliga a dimitir al presidente De la Rúa.**

EL PAÍS, 21 DE DICIEMBRE DE 2001.

**El Fondo Monetario exige a Duhalde un plan más creíble antes de aprobar créditos.**

EL PAÍS, 13 DE ENERO DE 2002.

¿Cuándo crees que acabarán las protestas populares contra el Gobierno argentino y las instituciones y empresas internacionales?

---

---

---

---

8. Vuelve a leer las causas del estallido de la crisis y comenta qué debería cambiar para encontrar una solución.

---

---

---

---

## 4. Y nosotros, ¿qué podemos hacer?

9. Discutid en clase si son válidas cada una de las siguientes afirmaciones:



EL PAIS, 27 DE ENERO DE 2002

- Argentina no pagará más su deuda externa.
- Deben convocarse elecciones para elegir un nuevo Gobierno argentino.
- Las políticas económicas liberales del FMI permitirán salir de la crisis.
- Argentina tiene recursos naturales y humanos suficientes para que los argentinos no tengan que pasar hambre.



**Intermón  
Oxfam**

# Global express

Gaurkotasuna ikasgelan

## Argentina krisian hondoratzen da



“Argentina Titanic-aren moduan hondoratzen da, baina ez zulo handi baten erruagatik, zuloak toki guztietatik dituelako baizik.”

(Eduardo Duhalde, Argentinako egungo presidentea)

Azken urtean, Argentinako hiru milioik erdi mailako klasekoa izateari utzi zion eta txiro izatera pasa zen. Lau urteko atzeraldi eta zorpetzearen ostean, argentinarrak euren etsipena kalera atera dute lapikoekin manifestazioak eginez, supermerkatuak garbituz eta Estatuko Segurtasun Indarrei aurre eginez.

Global Express-aren argitalpen honek krisiaren zergatiak aztertzen ditu, Argentinako errealitate ekonomiko eta sozialera hurbilduz.

  
**Intermón  
Oxfam**

- Krisiaren piztea
- Zer da Nazioarteko Moneta Fondoa? (NMF)
- Protagonistek kontaktzen digute
- Enpresa espainiarrek betetzen duten papera
- Batzuek asko dute, beste batzuek ezer ez
- Norantz goaz?
- Gida didaktikoa

# Krisiaren piztea



Telebistak egun hauetan zehar herri "garatu" batengandik espero dezakegunaren Argentinako oso bestelako irudia igorri digu. Milaka pertsonak betetzen zituzten kale eta enparantzak lapikoak, estalkiak eta zarata egin zezakeen edozein objektu jotzen zuten bitartean. Gosez, langabezia eta segurtasun ezaz kexu ziren. Hiriburuko nahiz baserriko jendea da, gizarte klase txiroenetakoa, baina baita azken lau urteetan zehar euren diru-sarrerara familiarretan kolpe itzela jasan duten erdi eta goi mailako klasekoak ere.

Argentinako egoera ekonomikoa ez da beti halakoa izan. 1930ean, Argentina munduko potentzia bat genuen, Frantziaren antzeko sarrerekin pertsona bakoitzeko. Baina, 40. hamarkadatik aurrera, Argentinako ekonomia hondoratzen hasi zen, ustelkeriak, erregimen militarrek eta barne gatazkek ahulduta. Berrogei urte geroago, Argentina erabateko krisi ekonomiko eta soziala bizitzear zen, % 200 inguruko inflazioarekin eta kanpo-zorrrak gora eginez. Egoera hartan, orduko presidentek, Carlos Ménemek, Nazioarteko Moneta Fondoaren politikak hartu eta ezartzea erabaki zuen: komertzioaren erabateko liberalizazioa eta bertako enpresen pribatizazioa kanpoko inbertsioa sustatzeko. 1991n, pesoa dolarrera bihurtu zen –hau da, bi txanponen trukea banan-banan parekatu zen– inbertitzaileen konfiantza sustatzeko. 90. hamarkadaren erdialdean, inflazioa ia desagertu zen, baina nazioarteko mailegu handiak galdu zituzten dolar-erreserba handia izateko eta, horrela, bihurtarritasuna bideragarri egiteko. Munduko finantza sektoreek Argentina jotzen zuten estatu txiroenek mundu-mailako merkatu librearen printzipioak hartuz euren ekonomia suspertu eta garapena handitzearen adibidetzat. "Lehen munduko" herria zen "hirugarren munduko" kontinente baten barruan: Hegoamerika.

Baina 90. hamarkadaren bukaeran, dolarra nazioarteko merkaturan igotzeak ekoizkin argentinarren igoera ekarri zuen. Argentinako txanponak, pesoak, dolarraren balio bera zuenez, dolarra beste txanponekiko igotzen zen bakoitzean, pesoa ere igo egiten zen eta, ondorioz, Argentinako ekoizkinak igotzen ziren, eta Estatu Batuetan balio zutenaren antzekoa balio zuten. Ekoizkin berak Brasilen eros zitzaizketen askoz ere merkeago, beraz Argentinako esportazioak beherantz egiten hasi ziren modu arriskutsuan eta bertako enpresa askok porrot egin zuten beste herrialdeetako ekoizkinen prezioekin ezin zirelako lehiatu. Herria bertako baliabiderik gabe gelditzen hasi zen, kanpo-zorrraren zenbatekoa geroz eta gehiago handitzen zen bitartean. 2001. urtean zehar, krisiak nabarmen egin zuen okerrerantz. Irtenbidea emateko, Gobernuak NMFari diru gehiago mailegatzeko eskatu zion, baina ordaintzeko baldintzek gizarte-gastuak murriztera behartu zuten, biztanleen oinazea handituz. Bitartean, urte berean, inbertitzaile handien esku zeuden herrialdeko kapitalen ihesa 120 milioi eurotik gora igo zen. Abenduaren erdialdera jendeak uste zuen pesoa devaluatuko zela eta euren dirua dolarretara bihurtu nahi izan zuten. Baina

ez bankuek ezta Gobernuak ere ez zuten dolar-erreserba nahikoa biztanleen eskaerari aurre egiteko. Horregatik, pertsonak euren banku-kontutik atera zezaketan dituen kopurua mugatu zuten. "Corralito" ezaguna dugu hau: argentinarrek ezin zuten euren banku-kontuetatik hileroko 650 dolar baino gehiago atera (720 euro inguru). Gainera, aurrezkiak banku-kontuetan gelditzen ziren bere horretan eta horiek epeka erabil zitzaizketen bakarrik. Falta zitzaien izan zen, eta argentinarrek kalera bultzatu zituen.

Bi presidentek kargua galdu eta gero, Duhaldek, presidente berriak, azkenean txanpona devaluatu behar izan du eta dolarrarekin zuen baliokidetasunarekin amaitu. Honek Argentinan berriz ere inflazioa sortuko du: ekoizkinen prezioek dolarra izango dute erreferentzia gisa, eta pesoa devaluatu eta dolarrarekiko balioa galtzen duen bakoitzean prezioak igoko dira. Jendearen soldatak eta aurrezkiak pesotan izango dira, eta diru berarekin aldiro gauza gutxiago erosi ahalko dute.

## Zertxobait gehiago ULERTZEKO

Argentinak 36 milioi biztanle du.

Gaur egun, orotara 14 milioi pertsona bizi da txirotasun klasearen azpitik (biztanleen % 44). Azken urteko krisiak erdi mailako klaseko hiru milioi argentinar bihurtu zituen txiro.

Langabezia biztanleria ekonomikoki aktiboaren % 18,3ra heldu da, estatuko historian ezagutu dugun kopururik altuena.

1992tik, Argentinako nerabeen % 45ak utzi du bigarren hezkuntza, ikasten jarraitzeko dirurik ez duelako.

Herri-zorra 132 mila milioira igo da.

Estatuko aurrekontuaren herenarekin zorraren interesak bakarrik ordain ditzakete.

Ekonomia atzerapena duela 41 hil hasi zen.

Bost presidente bi astetan eta 28 hildako istiluetan zehar.



## Zer da Nazioarteko Moneta Fondoa? (NMF)

NMF gobernuen arteko erakunde bat da eta egoitza Washington DCn dauka. 1945ean sortu zuten munduko ekonomiaren osasuna mantentzen laguntzeko, eta 183 herrialdek osatzen dute. NMF nazioarteko moneta sistemaren erakunde nagusia da, herrien arteko harremanak ahalbidetzen dituen herri ezberdinen txanponen arteko ordainketa eta transakzio sistema.

Kide diren estatuek "izen-emate kuota" deritzon diru kopuru bat ordaintzen dute. Zenbateko horrek mugatzen du herri batek krisi egoeran NMFari eskatu diezaiokeen diru kopurua. Kuotek herri bakoitzak botatu eta erabakitzeko duen eskubidea ere mugatzen dute; hots, NMFak duen erabakitzeko ahalmena ekarpen handiagoa egin dezaketen estatuen menpe dago. Horrela, NMF mantentzen duten bost herri nagusiak Estatu Batuak, Japonia, Alemania, Frantzia eta Erresuma Batua ditugu.

NMFak haien ordain-balantzarekin arazoak dituzten kide diren herriei mailegatzeko dirua –herri batek bere esportazioen bidez kanpoko txanpon nahikoa lortzen ez duenean behar dituen ekoizkinak inportatzeko–. Aitzitik, herri zordunek NMFak ezarritako erreforma ekonomikoaren programa bat onartu behar dute, defizita gainditzeko gastu publikoak murrizteari zuzendutakoa. Bai Munduko Bankuak bai NMFak Hirugarren Munduko herrien zorraren bilioi dolarren jabe dira.

**"Herri bateko sektore handiak lanik gabe uzten dituen politikak ezartzen dituen edozein Gobernu ez da ari bere zeregina betetzen."**

(JOSEPH STIGLITZ, MUNDUKO BANKUKO PRESIDENTEORDEA. EL PAÍS, 2002KO URTARRILAREN 10A.)

Herria krisian sartzearekin bat, Argentina liberalizazioa herri txiroen hazkunde ekonomikoaren eragile gisa sustatzen duten NMFaren politiken porrotaren adibide dela esaten dute. Aipatu politikek inflazioarekin amaitu eta kanpoko diru-fluxuak bultzatzea lortzen duten arren, krisialdian gastu publikoaren murriztea ere ezartzen dute –horrek maiz gizarte-gastuen murriztea dakar, hala nola hezkuntzarena, ospitaleena, errepideena eta eraikina– eta garapena epe luzean eragozten dute.

**"Jendeak ezin du gehiago. Guztiak dira lapur, hiltzaile. Baina oraindik falta da, falta da benetako aldaketa bat emateko."**

(HEBE DE BONAFINI, MAIATZEKO AMEN BURU. EL PAÍS, 2001EKO ABENDUAREN 21A.)

Nahiz eta bertako zenbait sektorek NMFaren politikatik etekinak ateratzen dituztela egia izan, normalean bakarrik bertako eliteak dira. Gainera, politikek herri bereko aberats eta txiroen arteko ezberdintasuna handitu ohi dute. Kritiketako bat elite horiek herriak pairatzen dituen krisiak pairatzen ez dituztela da, gehienek euren dirua atzerriko banku edo zerga paradisetan baitute.

**"Hemen ezin duzue egitasmorik izan. Han ere 16 orduz aritzen zarete lanean, baina baduzue etorkizunik."**

(ALFREDO) (EL PAÍS, 2001EKO ABENDUAREN 23A)

Argentinan asko eta asko Espainiatik eta Italiatik emigratu zuten ondorengoak dira, zeinak XX. mendearen erdialdean euren jatorriko herrietan pairatzen ari ziren gose eta jazarpenari ihes egin baitzioten. Argentinak hartu zituen eta han finkatu ziren. Orain, haien seme-alabek eta bilobek denbora luzea ematen dute kontsuletxeen ilaratan hiritartasuna bideratu eta Espainiara etorri ahal izateko lan egitera eta euren bizitza berregitera, Argentinako etsipenetik aldentuz.

**"Zergatik Papa Noelek ez ditu elur-oreinak ekartzen Argentinara etortzen denean? ¡Jaten ditugulako!"**

(EL PERIÓDICO, 2001EKO ABENDUAREN 22A.)

Etsita egonda ere, oraindik Argentinako kaleetan txantxetan aritzeko eta alternatibaren bat bilatzeko gogoia antzematen da. Bost milioi pertsonak truke-sare batean hartzen dute parte ekoizkinak, zerbitzuak eta norberaren objektuak trukatu ahal izateko. Astebeterako auto bat alokatzen dute hagin bat enpastatzearen edo ingelera eskola baten edo erretzeko arkume erdiaren truke.

# Enpresa espainiarrek betetzen duten papera




Espainia kanpoko bigarren inbertitzailea da Argentinan, Estatu Batuak eta gero. Hegoaldeko Kono horretan dagoen herri horren inbertsioaren % 37,4 du bere baitan. 80. hamarkadan inflazioa Argentina itotzear zenean, Argentinako enpresa publiko gehienak pribatizatu zituzten kanpoko inbertsioak erakartzeko oso baldintza egokietan. Enpresa eta banku espainiarren garaia izan zen, zeinek Argentinako enpresa ugari oso prezio baxuan erosi baitzituzten estatuaren une ekonomikorik okerrenetariko batean. Telefonikak Argentinako harremanak ia monopolioan zuzendu ditu. Eta banku espainiarrek Argentinako Gobernuari herri-zorra ordaintzea eskatzen dioten hartzekodunetariko batzuk

ditugu.

Orain, krisia larriagotu, pesoa devaluatu eta Argentinako Gobernuak agindutako ordainketak etetearekin bat, enpresa eta banku nagusien zuzendari eta gerenteak krisiak euren akziodunentzat suposatuko duen galeraz kexu dira. Adibidez, Banco Central Hispanok gutxi gorabehera 1.596 milioi euroko galera izatea aurreikusten zuen. Baina, hala eta guztiz ere, lehen banku espainiarrak 2001. urtean 2.486,3 milioi euroko etekina lortu zuen. Aurreko urtearekin alderatuta, % 10,1 gehiago.

## Batzuek asko dute, beste batzuek ezer ez



Argentinan, hainbat eta hainbat herri txiroetan bezala, ezberdintasun ikaragarria dago diru-sarrera eta baliabideen banaketari dagokionez. Argentinako aholkulari batek, Equis-ek, ikerketa bat egin du Nazio Batuen gomendioak jarraituz, eta egiaztatu du Argentinan diru-sarrera gehien dutenak gutxiago dutenak baino 30 aldiz gehiago dutela. Horri "gizarte-hutsune" deritzogu, eta herri beraren barruan aukera eta baliabide ezberdintasuna islatzen du. Argentinan, hutsune hori azken 26 urtetako okerrera da, 80. hamarkadako inflazio-krisia baino okerrago.

## Norantz goaz?



Herri txiro bat garatu ahal izateko, kanpo-zorra kitatzeko irtenbideak bilatu behar ditu (beste gauza batzuen artean). Kanpo-zorrak herri bakoitzaren baliabide eskasekin amaitzeaz gain, zorrik zaharrenak ordaindu ahal izateko mailegu berriak lortzera derrigortzen ditu. Badira nazioarteko mugimendu eta kanpainak herri txiroei kanpo-zorra barkatzeko –hau da, baliogabetzeko– eskatzen dutenak, edo bestela bere trukea –kanbio– garapen-planetan inbertitzeko. NMF eta Munduko Bankuaren kritika ere mundu osoan zehar

zabalduta da, akademikoak barne, eta "globalizazioaren kontrako mugimendua" deritzona globalizazioa soilik nazioarteko konpainia handien mesedetan joatearen aurka doaz, herri askotan ezegonkortasuna eta sufrimendua sortuz. Zenbait hots kritikok Munduko Bankua eta NMF ixtea eskatzen dute, beste sektore batzuek erakunde horiek erabat aldatzea exijitzen duten bitartean, demokratikoagoak eta euren politiken kaltetu nagusientzat eskuragarriagoak izateko.

**Orain guztiok nazioarteko terrorismoaren kontrako gerra betean gaudela, ondoko zalantza ez dago sobera: Zer egin behar dugu gizakien gehiengoa zigortzen ari den merkatu-terrorismoarekin? Edo ez al dira terroristak finantzak, komertzioa eta gainerako guztia zuzentzen duten nazioarteko goi organismoen metodoak? Ez al dute estortsioa eta krimena praktikatzeko, itomen edo gosez hiltzeagatik lehergailuz beharrean?**

(EDUARDO GALEANO)

# Gida didaktikoa

## Gida didaktikoa

Gaineratzen dugun proposamena bigarren hezkuntzako ikasleei zuzentzen zaie. Jarduerak gizarte, etika, tutoretza eta beste hainbat alorretarako izan daitezke baliagarri, hala nola gaiarekiko interesa agertzen duen edozein irakaslerentzat. Proposamen honen helburua Argentina bizitzen ari den moduko krisi sozio-ekonomikoetan parte hartzen duten faktore eta aktoreak identifikatu eta ulertzea da. Global Expressaren eduki-gidak irakasleei proposamen didaktikoan aztertzen diren gaiak azaltzea ahalbidetuko die.

EGILEA: GASPAR TARRIDA

### 1. Jarduera

#### Irudien azterketa

**Helburuak:** Argentinako biztanleen zati handi baten egoera azaldu; ikasleek egoera honekiko duten enpatiaz baliatu; Argentinari buruzko aurre-kontzeptuak landu.

**Orientazioak:** ((1) argazkiaren bidez, ikasleek hura definitzeko hiru hitz aurkitu beharko dituzte (etsipena, gosea, laguntza, premia...); (2) ondoren, argazkiko jendea eskatzen ari dena zehaztu behar dute; (3) eta, azkenik, bost hitz aukeratu beharko dituzte (izen bereziak izan daitezke) Argentinari buruz alde aurretik zuten iritzia definitzeko (futbola, espainiar emigrazioa, psikoanalisi, abeltzaintza...). Azpimarratu beharko litzateke ondokoari buruz duten iritzia: baliabide naturaletan aberatsa ala txiroa den, profesionalki hezitako pertsonak dituen, e.a

### 2. Jarduera

#### Zergatik dago Argentina krisian?

**Helburuak:** krisiaren ezteandaren hiru arrazoi nagusiak aurkeztu.

**Orientazioak:** (4) kanpo-zorrek betetzen duen papera Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanetan eta bere eragina Hegoaldeko herrien biztanleengan, informazio espezifikoko gehiagoren bidez konpon dezakegun oso gai konplexua da. Galdera honekin bilatzen duguna da ikasleek zordunduta egotea zer den pentsatzea, egiteke uzten diren gauzetan aurrekontuaren gehiengoa zor bat ordaintzeko erabiltzen dutelako; (5) NMFaren politiken ondorio eta onuradunei buruzko galderak ondokoekin batera joan daitezke: nor da osasun eta hezkuntzako oinarritzko zerbitzuetako erabiltzaile nagusia?, ezagutzen al duzue Argentinan interes ekonomikorik duen espainiar enpresarik?, eta lortzen dituen mozkinak?; (6) Fontanarrosaren bineta oso zehatza da, baina "corralito" delakoa sorrarazi zuten arrazoiak argi genitzake

(dirua atzerrira ateratzen eragozte eta bankuen porrota, diru asko ateratzeko fondorik ez zutelako).

### 3. Jarduera

#### Lapikoak erabiliz protestatzea

**Helburuak:** gizarte-etzanda aztertzea egunkarietako argazki eta titularren bidez.

**Orientazioak:** (7) hasierako zatiaren irakurketak eta argazkiak ikaslea gizarte-etzandaren unean bertan kokatu behar dute (2001eko abenduaren 19tik 20ra bitarteko gaua), ondoko titularrek hurrengo hilean zehar egoerak okerrerantz egiten duela adierazi nahi dute, eta, azkenik, azken zatiak azpimarratu nahi du ez dirudiela krisiak epe laburrean irtenbiderik izango duenik: ikasleek jendearen aldarrikapen nagusiak asmatu eta komentatu behar dituzte; (8) azken ariketa honen bidez lortu nahi duguna ikasleek krisi honen arrazoi eta ondorioen arteko harremanari buruz gogoeta egitea da.

### 4. Jarduera

#### Eta guk, zer egin dezakegu?

**Helburuak:** krisiaren lau irtenbide posibleei buruzko eztabaida piztu.

**Orientazioak:** gela bi taldetan banatu eta talde bakoitzak alde aurretik baieztapen bat eztabaida dezala eta, ondoren, ondorioak elkarrekin komenta ditzatela; ikasleek ikusi behar dute lehen baieztapena (Argentinak ez du inoiz gehiago ordainduko bere kanpo-zorra) hirugarrenari kontrajartzen zaiola (NMFaren politika liberalek krisiarekin amaitzea ahalbidetuko dute); proposatu lau irtenbideak posibleak dira, baina, agian, gerta ezinak.


# Gehiago jakiteko...

## Gehiago jakiteko...

### Zinema:

#### Nueve Reinas

Zuzendaria: Fabián Belinsky  
Buenos Aires, 2001  
Iraupena: 115 min.  
Komedia



### Liburuak:

#### Pobres, pobreza y exclusión social

Lan Ikerkuntzetarako  
Ikasketa Zentroa  
2000  
262 or.

#### El bumerang de la deuda

Susan George  
Intermon argitaletxea  
1993  
350 or.

# Web orriak

## Web orriak

### Argentinari buruz (espainieraz)

[www.elclarin.com](http://www.elclarin.com)  
[www.lanacion.com](http://www.lanacion.com)  
[www.mafaldaresiste.com.ar](http://www.mafaldaresiste.com.ar)  
[www.argentina.indymedia.org](http://www.argentina.indymedia.org)  
[www.rebellion.org/argentina](http://www.rebellion.org/argentina)  
[www.derechos.org/nizkor](http://www.derechos.org/nizkor)

### Beste orrialde interesgarri batzuk (espainieraz)

[www.imf.org](http://www.imf.org)  
[www.worldbank.org](http://www.worldbank.org)  
[www.debtwatch.org/](http://www.debtwatch.org/)  
[www.attacmadrid.org](http://www.attacmadrid.org)  
[www.intermonoxfam.org](http://www.intermonoxfam.org)  
[www.oneworld.net](http://www.oneworld.net)

### Beste orrialde interesgarri batzuk (ingelesez)

[www.brettonwoodsproject.org](http://www.brettonwoodsproject.org)  
[www.jubilee2000.org](http://www.jubilee2000.org)  
[www.panos.org.uk](http://www.panos.org.uk)

**sar zaitetz gure web-gunean eta behera kargatu Global Express-a!**  
**[www.IntermonOxfam.org/educar/global](http://www.IntermonOxfam.org/educar/global)**

Global Express-ek galderak eragin eta sortu nahi ditu gure eskoletako ikasleen artean, komunikabideek esaten dutenaz. Errealitatearen ikuspegi kritikoa sustatu nahi dugu, ikasleek munduaren egoera, bereziki, garapen bidean dagoen munduaren egoera ulertzeko aukera izan dezaten.

Global Express, ondoko talde hauen ekimena da: Development Education Project (Erresuma Batua), Panos Institute (Erresuma Batua), Centrum VOOR Mondiaal Onderwijs (Holanda), Centro Educazione Mondialita (Italia) e Intermón Oxfam (Espainia).

Europako Batasunak diruz laguntzen du Global Express.



## Argentina: --- Krisian hondoratzen da

1



© REUTERS/CORDON PRESS

1. Argazkia definitzen duten hiru hitz idatzi.

---

---

2. Zer uste duzu ari direla eskatzen pertsona horiek?

---

---

---

3. Zer zenekien Argentinari buruz? Idatzi herriaz zenuen iritzia definitzen duten bost hitz.

---

---

---

---

---

# 2. Zergatik dago Argentina krisian?

Argentinako gizartearen ezteandaren arrazoiak asko dira eta konplexuak. Krisi ekonomikoa duela lau urtetik okerrerantz egiten ari da eta egunero jende gehiagori eragiten dio. Egun argentinarren % 44 txirotasunean bizi da (elikagai-saskia hilero 75 euroren baliokide dela kalkulatu da), eta inoiz baino langabezi gehiago dago. Egoera larri honen arrazoiak artetik garrantzitsuenak adieraziko ditugu:

## Kanpo-zorra

Argentinak kanpoko bankuekin eta nazioarteko erakundeekin duen herri-zorra, egun 130 mila milioi dolarerra igo da. Horrek esan nahi du estatuko aurrekontuaren herena aipatu zorra ordaintzeko zuzentzen dela, eta zorra interesak ordaintzeko mailegu berrien ondorioz etengabe hazten da

## NMF politika liberalak

Mailegu berriak lortzeko, Argentinako Gobernuak Nazioarteko Moneta Fondoak ezarritako arau ekonomikoak bete behar ditu. Doitze-politika horiek defizit ekonomikoa murriztu nahi dute (gastu gehiago diru-sarrera baino), gobernuei gastu publikoa murriztera (osasuna eta hezkuntza bezalako oinarritzko zerbitzuetan) eta enpresa publikoak pribatizatzerara behartuz (harremanetakoak, energiakoak, garraiokoak, ...).

4. **Bila ezazu informazio gehiago kanpo-zorrari buruz eta gogoeta egizu: Zer da Argentina bezalako herri batentzat hain zordunduta egotea?**

5. **Nork pairatzen ditu modu zuzenagoan NMFaren politikak? Nork atera dezake etekina politika horietatik?**

## "Corralito" delakoa eta politikariak

Gizarte-ezteandaren arrazoi zuzenenen artean Gobernuaren azken neurri ekonomikoak ditugu. "Corralito" delakoa astero bakarrik kopuru bat atera dezaketen argentinarren aurrezki eta bankuetan eginiko beste diru gordailu batzuen irudi da. Politikoei trakes-tasuna, ustelkeria eta euren dirua atzerrian izatea leporatzen zaie.



EL PAIS, 27 DE ENERO DE 2002

6. **Behatu bineta. Zein da politikoen irtenbide-proposamenenei ematen dien sinesgarritasuna?**

# 3. Lapikoekin protestatzea



Krisi ekonomiko eta sozialak Gabonak baino pixka bat lehenago egin zuen eztanda. "Corralito" delakoak, bankuetatik dirua ateratzea galarazten zuenak, Argentinako eri mailako klasea kalera irtenarazi zuen, langabetu, pentsionista eta familia txiroenekin bat. Joaquín Morales Solá kazetari argentinarrak gizarte-etztanda baino lehenagoko egunetan ikusi zuena kontatzen digu elkarrizketa batean: "Txirotasunari eta lanik ezari buruzko estatistikak irakurtzen jardun dut. Zergatik ez dago sutan herri hau? Hau da neure buruari egiten diodan galdera 1995etik: Zergatik ote eusten dio hainbat gizarte honek. Bost urtean zehar geure buruei galdetzen genien zergatik jendea ez zen kalera irteten. Orain, galdera zera da: etxera noiz bueltatuko den." (El País, 2002ko urtarrilaren 6a)



## 7. Irakurri eta behatu ondoko titularrak eta irudiak:



© REUTERS/CORDON PRESS

### Pesoaren berehalako devaluazioak Argentinan prezioak izugarri igotzen ditu.

EL PAÍS, 2002KO URTARRILAREN 4A.

Argentinan gosea hasten ari da. Lau milioi txirok egunero mehatxu hau jasaten du nekazaritzan eta abelazkuntzan munduko aberatsenetakoa den herri batean. Probintzia txiroenetan eta hiri handietako auzoetan zaila da oinarritzko elikadura-saskia lortzea. Trukea, batez ere arropa eta janari trukea, bizitzeko ezinbesteko irtenbidea da

**Gose-mehatxuak lau milioi argentinarraren eramatzen ditu berekin.**

EL PAÍS, 2002KO URTARRILAREN 27A.

### Argentinako gizarte-etzandak De la Rúa presidenteari kargua uztera behartzen dio.

EL PAÍS, 2001EKO ABENDUAREN 21A.

### Moneta Fondoak Duhalderi kredituak onetsi aurretik plan sinesgarriago bat exijitzen dio.

EL PAÍS, 2002KO URTARRILAREN 13A.

Noiz uste duzu amaituko direla herritarren keak Argentinako Gobernu eta nazioarteko erakunde eta enpresen kontra?

---

---

---

---

---

8. Kriaren eztearen arazoak bigarrenz irakur itzazu eta komentatu zer aldatu beharko litzatekeen irtenbide bat aurkitzeko.

---

---

---

---

## 4. Eta guk, zer egin dezakegu?

9. Gelan eztabaidatu ondoko baieztapenak baliodunak diren:



EL PAIS, 27 DE ENERO DE 2002

- Argentinak ez du bere kanpo-zorra inoiz gehiago ordainduko.
- Hauteskundeak egin beharko lituzkete Argentinan Gobernu berri bat hautatzeko.
- NMFaren politika ekonomiko liberalek krisiarekin amaitzea ahalbidetuko dute.
- Argentinak natur eta giza baliabide nahikoak ditu argentinarrak gosea pairatu behar ez dezaten.



**Intermón  
Oxfam**